

HERRITARREN PARTAIDETZA PLANA

H.J.P.B. izapidetzeko (Hiri Jarduketako Plan Berezia)

NAGOREN – ARTZIBAR (NAFARROA)

HJPBaren arrazoia:

**Nagoren, 5 POLIGONOKO 308 LURZATIAN JARDUTEA
(erabilera-aldaketa eta eraikuntza-jarduketaren erregulazioa)**

Norentzat:

JARDUKETAREN ERAGINPEAN DAUDENAK: Herriko bizilagun mugakideak

KONTSULTA EGITEKO DATA: 2023ko urtarrila

“PROPOSATUTAKO JARDUKETAK JENDAURREAN JARTZEA”

Dokumentu honi ukituei egindako kontsultan Udalean (Nagore) aurkeztutako HJPB dokumentua erantsi zaio. Dokumentu horretan idatziz eta planoekin azaltzen da lurzati horretarako proposatutako jarduketaren egungo egoera eta egoera eraberritua. Horrela, kontsultan, sinatutako akordiora iristeko kaltetuei proposatutako jarduerak aurkezten dira.

1.- INTERESA DUTEN GIZARTE-ERAGILEAK IDENTIFIKATZEA

Kasu honetan, lurzati hauen jabeak hartzen dira eraginpean, akordioa sinatzeko:

1.- LURZATIA 342 zk. 5 Poligonoa

Jarduera egiten den lursailaren iparraldetik mugakide den bizilaguna.

2.- LURZATIA 336 zk. 5 Poligonoa

Ekialdeko bizilaguna, karrikaren beste aldean.


3.- LURZATIA 409 zk. 5 Poligonoa

Mendebaldeko bizilaguna, mendi aldera doan bide zolatuaren beste aldean.

5. poligonoko 308 lurzatiaren jabetzak enkargatu du HJPB hau, ezarri beharreko erabilera eta lurzatiaren barruan jarri beharreko eraikuntzaren antolamendua arautzeko.

Ez dira haren datuak erantsi, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan oinarrituta, dokumentua jendaurrean jartzeko.

5. poligonoko 308. lurzatiaren eta eraginpeko mugakideen kokapen-planoa:



Dokumentazioa jendaurrean egonen da udaletxean, partaidetza prozesua betetzeko. (Jarduten den udalerria ibarreko udala kokatuta dagoen udalerrri bera da, eta, beraz, kasu honetan, ez da beharrezkoa Udala bailara - Udalerria erakusketa bikoitza egitea).

2.- ANTOLAKUNTZA PROPOSAMENEN LABURPENA

Sustatzaileak ekipamendu-eraikin bat eraiki nahi du lurzati horretan.

“Biltegiatarako eta ekintzaileentzako bulegoatarako udal-eraikina” egin nahi da.

Hartara, Hiri Jarduketako Plan Berezia idatzi behar da (HJPB).

Plan horren xedea da Artzibarko Udal Planaren Zehaztapan Xehatuen Aldaketa Zehatza, ondoren, eragindako lurzatian eraikin berri hori eraiki ahal izateko, Plan horretako zehaztapanak betez.

Eraikina **Ekipamendu-motakoa** izanen da.

Egungo Planeamenduan Lurzatiaren erabilera **bizitegi-erabilerakoa** da. Izan ere, UE.2 egikaritze-unitatearen erabilera orokorra hori da eta lurzattia horren barnean dago.

Beraz, Planeamenduko zehaztapanak aldatzen dira lurzati horretan, ondoren eraikina eraiki ahal izateko.

Artzibarko Udal Planaren aldaketa xehatua da, Eraikuntza Jarduketan Erregulazioa ere planteatzeko.

Eraikin berriaren ezaugarriak planteatzen dira, baita lerrokadurak, bolumenak eta sestrak ere.

Ikus HJPBren planoetan agertzen den antolaketa proposamena.

3.- BIDERAGARRITASUN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA.

Kasu honetan ez du eraginik, inguruan ez baita hirigintza-jarduerarik planteatu. Lurzati pribatua baino ez da jarduten.

Bideragarrtasuna ez da aintzat hartzen, jarduketa txiki bat baita, jabetzak erraz onartzeko modukoa.

Gainera, ez da plangintzan aurreikusitako eraikigarritasuna handitzen, eta, beraz, ez dago hirigintza-kargarik (lagapenak, etab.) 5. poligonoko 308. lurzatian.

Hala ere, ekialdeko eremuan, sarbideko kalerantz, 22 m²-ko azalera lagatzea planteatzen da; horrela, kalea erregularizatu egingo da eraikinerako sarbidean.

Kasu horietarako Udalak planteatutako tasak ordainduko dira.

4.- HEDATZEKO ETA PARTE HARTZEKO METODOA ETA TRESNAK

Jardueraren sinpletasuna dela eta, Herritarren Partaidetzarako Plan hau planteatzen zaie aurreko zerrendan definitutako eraginpekoiei, sinatzeko.

Parte-hartze Plan hau jendaurrean jarriko du Udalak, gutxienez 20 egunez, behin betiko onartu aurretik.

On-line ere argitaratu ahal da, Artzibarko Udalak zerbitzu hori baitu.

Edonola ere, hedapen-modua Udalak erabakiko du zuzenean.

5.- PARTAIDETZA PROZESUAREN ONDORIO BALORATUAK

Jabetza – jarduketaren sustatzailea bere datu guztiekin (HJPB) argitaratu ondoren, jarraian eransten den dokumentua sinatzen dute alderdi guztiek, eta ordezkaturako ukituak jarduketarekin ados daudela adierazten dute honako hauei dagokienez:

1.-Lurzatiaren **ERABILERA**.

BIZITEGI-ERABILERATIK EKIPAMENDU-ERABILERARA aldatu da, Artzibarko Udalak biltegietarako eta ekintzaileen bulegoetarako udal-eraikin bat eraiki ahal izateko.

2.- Eta **ERAIKUNTZA JARDUKETAREN** erregulazioa (eraikin berriaren kokapena eta ezaugarriak lurzatian), Artzibarko plangintzako egungo zehaztapen orokorrak betez.